

Gure enpresaren izena “**Bidera**” da. Immigrazio tasa gero eta handiagoa den heinean, langabezia maila ere gorantz doa. Atzerritarrek, lan munduan integratzeko, sarritan oztopoak aurkitzen dituzte, hala nola hizkuntza eskakizunak, lan esperientzia falta edota dokumentazio prozesu zailak. Ondorioz, pertsona askok lana topatzeko zailtasunak izaten dituzte, eta horrek haien bizi kalitatean ere eragina du. Beraz, immigrazioaren eta langabeziaren arteko harremanari aurre egiteko, beharrezkoa da politika irekiak eta elkarlaneko integrazio prozesuak bultzatzea, atzerritarrek gizartearen eta ekonomian modu eraginkorrangoan parte har dezaten.

Gure enpresaren helburua langabezian dauden pertsonak kontratatzekeo bitartekari-enpresa bat sortzea du helburu, etorkin askok lana aurkitzeko dituzten arazoak, hala nola dokumentazioa, hizkuntza oztopoak edo komunikazio gaitasunak, konpontzen laguntzeko. Enpresa honek langabeen trebetasunak garatzeko prestakuntza espezializatua eskainiko du, elkarrizketa ahalmenak hobetuz eta bakoitzaren arazoak modu pertsonalizatuan tratatuz.

